




Hazkuntza. Europako graduatu tasarik handiena du EAEk, eta haien erdia Lanbide Heziketatik atera da. Irudian, Elorrieta Erreka Mari LHko ikastetxeko ikasleak.

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



TEKNOLOGIAREN LASTERKETA

Zientzian eta teknologian oinarrituriko ekonomiaren eraldaketa proposatu du Jaurilaritzak; bideari ekin aurretik, gizartean ahuleziak eta indarrak tartekatzen dira, lehia sekula baino globalagoa bihurtu den garaiotan.

// *Ivan Santamaria*

ekonomiaren bigarren eraldaketa», gustatzen zaio esatea Eusko Jaurilaritzari bizi ditugun garaiak definitzeko. Azken finean, herrialdea globalizazioak inposatu dituen arau berrietara nola egokitu dago jokoan. Garai batean gertuko lehiakideekin parekatzea zen helburua, baina teknologiaren aroak jokalekua zeharo zabaldu du. Lehia globala bihurtu da. Ekonomiaren ohiko liderrak —AEBek edo Japoniak— ez diote azeleragailuari sakatzen utziko, baina, aldi berean, orain arte lehia globaletik kanpo zeuden herrialdeak —Txina, India eta Errusia, batez ere— zitzu bizian ekin diote hazkundearen bideari. Erroren tamainak ez du parekorik. Gustuko izan edo ez, 3.000 milioi lagun globalizazioaren gurpilean sartu dira. Hasi da lasterketa.

Mundializazioaren trena errailetik ateratzen ez den bitartean, mundu guztiak pairatuko ditu horren onurak eta kalteak, baita Euskal Herri txikiak ere bai. Oraingoz, efekturik txarrenak zeintzuk diren ikasi ditugu. Deslokalizazioak, esaterako, kosteak murrizteko asmoz garapen maila apalagoa duten herrialdeetara alde egiten duten enpresen errealitatea erakutsi digu. Baina, ziurrenik, horren atzetik dagoen beste fenomeno gordinago batez jabetzea zailagoa da: lantoki berria non jarri aukeratu behar dituztenean konpainiek dagoeneko abantaila eta traba horiek kontuan hartzen ari dira. Joaten direnei ez datozenak gehitu behar zaizkiela, alegia.

«Maroko izan edo Danimarka izan aukeratu behar dugu», aipatu izan du inoiz Xabier Agirre Arabako ahaldun nagusiak. Ez zaio arrazoirik falta. Eskulangintza intentsiboan berezitatutako ekonomia izatea, koste merkeekin, ez dirudi

gaur egun euskal ekonomiaren eskuetan dagoenik. Tren hori ez doa inora. Bigarren bidea, berrikuntzarena, zientzia eta teknologiarena, sustatzea da administrazioek proposatu duten ihesbidea. Baina horretarako prestatu dago Euskal Herria? Hori lortzeko bitartekoak eraikitzen ari gara?

Hezkuntzan eta egungo industria egituran bilatu beharko litzateke galdera horien erantzuna. Hezkuntza, bai, teknologiaren aroak exijitzen duen ezagutza, azken finean, pertsonengan oinarritzen delako. «Berrikuntza, gauzak sortzeaz baino gehiago, balioa sortzeari buruz ari da», idatzita dator EAEko 2010 Zientzia eta Teknologia Planean. Pertsonak dituzte ideiak, eta pertsona horiek hezitzea beharrezkoa da.

Euskal Herriko zenbait adierazle aztertu baino lehen, merezi du jokaleku globalean dauden zenbait joera aztertzea. Sarritan globalizazioaren ohiko topikoekin topo egiten da. Oso zabaldua dago honako hau: balio gutxi duten industriak ari dira garatzeko bidean

Gustuko izan edo ez, munduko beste 3.000 milioi lagun gehitu dira lehia globalera

Txinak, egunero, 34 zientzia eta ingeniari-tza doktore ateratzen dituzte lan merkatura

(HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZENDU)

egitura

2007ko urriaren 28a
176. zenbakia
ekonomia@berria.info